



Kultura eta aisia euskaraz Donostian

antzerkia

- **Wilt, panpina puzgarriaren hilketak**
Ados Teatrea
Otsailaren 4tik 5era, 20:00etan
Sarrera: 18€, 15€
Antzoki Zaharra

hitzaletak

- **Berezko izaeran sortzen diren konfliktuak eta konpontzeko bideak**
Hizlaria: Jesus Maria Mujika
Otsailaren 7an, 19:00etan
Donostiako Erligio Zientzietarako Goi Ikastegiak antolatutako jardunaldiak
Koldo Mitxelena Kulturunea
- **Familian sortzen diren gatazkak eta konponketarako bideak**
Hizlaria: Joseba Urkiola Aranzadi
Otsailaren 8an, 19:00etan
Donostiako Erligio Zientzietarako Goi Ikastegiak antolatutako jardunaldiak
Koldo Mitxelena Kulturunea
- **Bizitza sozialean sortzen diren gatazkak eta konponketarako bideak**
Hizlaria: Aitziber Blanco
Otsailaren 9an, 19:00etan
Donostiako Erligio Zientzietarako Goi Ikastegiak antolatutako jardunaldiak
Koldo Mitxelena Kulturunea

haur antzerkia

- **Katillukadak**
Kontakaitillu Taldea
Otsailaren 4an, 18:00etan
Adina: 4+
Larrotxene kultur etxea (Intxaurrondo)
- **Lorainen mozerroa**
Kutxa magikoa
Otsailaren 8an, 17:30ean
Adina: 6-12
Ernest Lluch kultur etxea (Amara)
- **Harriz harri**
L'home Dibuxat
Otsailaren 11n, 17:00etan eta 18:00etan
Adina: 2-8
Sarrera: 3,5€
Lugaritz kultur etxean-Imanol Larzabal aretoan (Antigua)
- **Ali Baba eta 40 lapurrak**
Borobil Antzerki Taldea
Otsailaren 11n, 18:00etan
Adina: 5+
Gonbidapenarekin
Okendo kultur etxean

festak

- **Donostiako kaldereroak**
Otsailaren 4an, 22:00etan
Parte Zaharra
- **Antiguan, Santa Ageda bezpera**
Kopla-kantari auzoko kaleetatik
Otsailaren 4an, 19:00etan
- **Artzainak eta inudeak**
Otsailaren 5ean, 12:00etan
Parte Zaharra



www.euskaraz.net



Jelena Sredanovic, bere erakusketako lan batzuen aurrean. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Hodeiak gogoetarako abiapuntu bihurtu ditu Jelena Sredanovicek

Artista serbiarraren 'Clouds and Reflections' erakusketa ikus daiteke egunotan Bilbao Arte galerian

Maite Azkuenaga Bilbao

Lainoak eta natur elementuak agertzen diren 30 arte lan inguruk osatzen dute Jelena Sredanovic artista serbiarrak Bilbao Arte galerian zabaldu duen *Clouds and Reflections* erakusketa. Egileak azaldu duenez, azken urtebetean egin ditu margolan gehienak. Baina aretoko sarreraren ondoan dauden margolanak Bilbora iritsi aurretik landutakoak dira. «Hasieran ikus daitezkeen lanak zaharragoak dira», dio. «Nire lana prozesu oso baten emaitza da». Hilaren 23 arte izango da haren lanak Bilbao Arten ikusteko aukera.

Artistak dioenez, ez da harriztekoa bere lanean lainoak eta paisaiaren islak azaltzea. Izan ere, hodeiek eta ur gainean islatzen diren zuhaitz adarrek dituzten kolore eta forma anitzek hausnartzera bultzatzen dute artista, naturak egindako deiak izango balira bezala. Horregatik, naturako fenomenoak eta ur azpiko mundu iragankorrean izaten diren aldaketak antzeman daitezke haren erakusketan. Hala ere, margolanek dituzten xehetasu-

nak antzemateko, irudiak arreta handiz begiratu behar direla uste du Juan Zapater Bilbao Arte galeriako zuzendariak: «Sredanovicen lanen detaileak ondo ikusteko gertutik begiratu behar dira, eta arreta handiz, gainera». Era berean, artistak duen maila tekniko handia ere nabarmendu du Zapaterrek. «Emakume gaztea da, baina Espainian, Erresuma Batuan eta Serbiako hainbat hiritan izan ditu erakusketak, eta sari bat baino gehiago jaso du».

Artista serbiarrak marrazten dituen laino eta natur elementu batzuk haren argazkietan oina-



Sarreran ikusgai dauden margoak zaharragoak dira, nire lana prozesu oso baten emaitza da»

«Nik teknika zaharrak eta teknologiaren ekarpen berriak txertatzen ditut lanetan»

JELENA SREDANOVIC
Artista

rritzen direla aipatu du. Horretarako, gehienbat hegazkinez egin dako bidaia baliatzen ditu. Gустuko duen hodeiaren argazkia ateratzen du aurrean eta inprimatu egiten du ondoren. Gerora hasten da lanean estudioan.

Sredanovicek xilografia izene-

ko teknika zaharra erabiltzen du lanak egiteko orduan. Teknika antzinakoa dela dio, baina ez dituela baztertertzen teknologiak sortutako tresna berriak ere. «Nik teknika zaharrak eta teknologiaren ekarpen berriak txertatzen ditut lanetan». Teknika horren bidez, artistak egurrezko xaflen gainean grabatzen du bere ideia, hainbat geruzatan. Irudi bakar batean elkarrengandik aske dauden geruza bat baino gehiago egon daitezke. Ikusleak geruza horiek antzemateko, beharrezkoa da gardentasuna, eta hori paper japoniarrari esker lortzen du.

Erakusketa gehiago

Sredanovicen erakusketa ez da izango Bilbao Arten ikusgai egongo den bakarra. *Clouds and Reflections*-ek Bilboko ibilbidea bukatu ondoren, beste artista batzuk hartuko dute serbiarrak utzitako lekua. «Orain hemen dagoena aurrean Bilbao Arten egongo den lehenengo erakusketa da. Baina ez da bakarra izango, gehiago egongo dira», azaldu du Zapaterrek. Guztira, beste sei gazte osatutako lanek beteko dute aretoa datozen hilabetetan. Horretarako, gazte bakoitzak bere proiektua aurkeztu zuen. Egitasmo ugari jaso ondoren, arte munduan aditua den epaimahai batek guztiak baloratu zituen, egokienak ikusgai jartzeko asmoz.

→ Laburrak

Larramendi ikerketa saria, Patziku Perurenarentzat

LITERATURA Patziku Perurenak irabazi du Larramendi ikerketa sariaren lehen ekitaldia, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatua, *Unaia galdu eta artzaia ugaldu* ikerketa egitasmoarekin. 6.000 euroko saria jasoko du hilaren 8an, Andoainean, Larramendi Bazkunaren egoitza berrian.

Atxagaren ipuin bat argitaratu du Etxeparek

LITERATURA Bernardo Atxagaren *Borrokaria* ipuina eta *At!* ikuskizunerako 26 idazlek idatzitako testuen bilduma eman ditu argitara Etxepare Euskal Institutuak, hiru hizkuntzatan bi liburuok: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. *Borrokaria* ipuina Atxagaren *Nevadako egunak* liburu berriaren aurrerapentzat jo daitekeela ohartarazi du Etxepare Euskal Institutuak.

Guggenheim museoa bisitatu du Hockneyk

ARTEA David Hockney margolaria Bilbon izan da egunotan, eta gustura geratu da Guggenheim museoa ikusi eta gero, leku egokia iruditu baitzaio maiztean han zabalduko duen *A Bigger Picture* (Margolan handiagoa) erakusketarako. Neurri handiko margolanekin batera, iPad bat erabiliz sortutako obrak ere bilduko ditu erakusketan. Egunotan Londresen dago ikusgai.



David Hockney, atzo, Bilbon.

Travellin' Brothers taldea Memphisiko jaialdian da

MUSIKA Travellin' Brothers taldeak gauro emanaldiarekin itxiko du Memphisiko Blues Challenge nazioarteko jaialdiko bere parte hartzea. Mundu osoko 200 talde batu ditu jaialdiak, eta han parte hartzeko aukera Hondarribiko blues jaialdian egindako emanaldiari esker eskuratu zuen Leioako taldeak.